

euskaldunak

Bitoriano Gandiaga

Euskal profeta lirikoak

Euskal Olerkari Nagusien taldekoa

Bitoriano Gandiaga Arretxe⁽¹⁾ (Mendata, 1928; Arantzazu, 2001) euskal literaturako Olerkari Nagusien taldekoa dugu. Baiezatzate honetaz zaila izango zaigu kritikalaritza adituena adostasun handiagoko iritzirik aurkitzea. Elorri (1962) Gandiagaren lehen liburua irakurri ondoren, hitz hutsik maite ez zuen Koldo Mitxelena Bitorianoaren oihartzuna "gure hizkuntzak adina iraungo duela" iragarri zuen⁽²⁾. Olerkari kontsolidatua eta Euskaltzaindiko Literatura batzordearen burua den Juan Mari Lekuonak "(Gandiaga) XX. mendeko bigarren erdiko euskal poetarik handiena" dela adierazi digu, baita kalitate bereziko idazleentzako erreserbatuiko mailan kokatu

ere: "Euskal olerkariak izan daitezke onak, oso onak, edo Gandiaga"⁽³⁾. Euskal literaturaren historialaririk onartuenetarikoa izan genuen Luis Villasante, Gandiagaren lehendabiziko olerkiak argitaratuak izan zirenean, hauxe idatzi zuen: "Goratasun edo mailla ontako gauzarik eztala egundaino egin gure izkuntzan esango nuke nik..."⁽⁴⁾.

Elorri liburua idatziz gero, lagunek⁽⁵⁾ beste olerki liburu batzuk eskuetatik kendu behar izan zizkioten idazlanak argitaratzekoaren atzakiak beti aurkitzen baitzuten oso perfektionista izan ohi zen Gandiagari⁽⁶⁾. Hiru gizon bakarka (1974), Uda batez Madrilen (1977), Gabon dut anuntzio (1986), eta Ahotsik behartu gabe

(1997); hauetaz gain, Denbora galdu alde (1985), prosaz eta bertsoz idatziriko euskal lehen autorkizun-liburua ere argitaratu zuen Bitoriano. Idazki hauei guztiok gehitu behar diegu Gandiagaren olerki solte mordo bat, hauetariko ez gutxi Arantzazuko Santutegiko elizkizunetarako abesti bihurtu ohi direnak. Zeinen hunkigarri durundatu zen, grabagailuaren bitartez, Gandiagaren 'Bitezcan sinismena' olerkariak berak kantatuta, haren heriotza elizkizunean.

Euskal kulturaren mugak zabaldu eta ireki

Liburu hauek guztiok zein baino zein ez bestelako eta interresgarriagoak zaizkigu, hauetan guztiotan Bitoriano eduki, literatur genero eta idazkera berriak hurratzen saiatu baitzen (olerki lirikoak, olerki sozialak, hiriko olerkia, olerki prosa...), baita ghinetan, beti ez esatearren, maisuki lortu ere:

"Gandiagak nahiko gauza diferenteak egin izan ditu, gainera bere asmoa hori izan da, gauza diferenteak egitea"⁽⁷⁾.

Euskal idazle bat Nagusien taldean sartzeko arrazoia errealitatea euskaldunagotzean ikusten dut, gehienik eta behin; gertakizunak eta esperientziak euskal bahean zehar, alegia, ahalik eta ederkien iragaztean. Euskal kulturaren mugak askatu, zabaldu eta edertzeko ildoan (aintzin lerroetan, gainera) eskaini digu bizitza Bitoriano Gandiagak⁽⁸⁾, berrorrek hainbeste maitez zituen pagoak era berean⁽⁹⁾, piskanaka-piska-



SEBASTIAN GARCÍA TRIÑILLO
Licenciado en Ciencias Económicas y Doctor en Filología Vasca. Académico correspondiente de Euzkaltzaindia y miembro colaborador del Instituto Diocesano de Teología y Pastoral. Ha trabajado durante treinta años en el Servicio de Estudios del BBVA, desde el que ha publicado numerosos artículos de temas económicos en revistas nacionales y extranjeras.

naka eta ixilik, eder eta sendo, alde batean, euskarari erregistro berriak sortaraziz:

“Era especial, único, un poeta de calidad sobresaliente que elevó el euskera a unos niveles de enorme belleza”⁶⁰; eta bestean, euskal pentsamendu zein diskurtsoa gaurko kultura espazioetara erakarri eta irekiz ere:

*Euskal Herriari,
agian, itsasotik
ez diote mugarik
oraindik ifini.*

*Itsasoa, ez kendu
ilusioen amu
bari gabekoa!*

“Erripetan hedaturik zegoen”⁶¹ euskera jasotzen egin zuen Bitorianok, baita mahats ahienak sartu, pertikak gurutzatu, urratu, mahatsondoak atxurtu, sulfatatu, parralak zutitu, neke-egurrak hartu, neke ez kontatu eta asko altxatu ere⁶²:

*mabats-ondorik lurrinak
ez dezan gorrindu,
berindu,
galdn.*

Euskal ‘arazoa’ erreflexio esparru nahasi eta estuan aurkitu zuen Gandiagak, zabaldu, sakondu egin zuen eta euskal pastoralez jantzi ere, tragedia kutsuko olerki testu eder batean, guztiok euskal kulturaren egoera larria ezagut genezan baita haren fruitu ederrak gozatu, hariak eta hartaz maitemindu edo txispatu arteraino:

Txispatu gaitzen alik...

Gandiagaren lan eremua euskal literatura bazen ere (utz ditzagun, gaurkoz, Gandiagaren gizakitasun edo erlijiotasun zein fedearen tamainaren gaineko iruzkinak, nirea baino luma prestuagoa eskatzen baitute), ez zuen literatura urmalean norbereturik edo lotan gelditu; askozaz urrutirago eta zorrotzago zihoazkioten asmoak “iraupen oneko arraulari horri”⁶³:

“euskera salbatuz, euskera baino zerbait gehiago ere salbatuko genuelako ustetan”⁶⁴:

Gandiagaren idazkien jasotzaile zuzena

Gandiagak literatura ekintzok mota guztiko irakurleci zabaldu arren, jasotzaile zuzenak esleitu zizkien: euskaldunak, hain zuzen. Ez digu, haatik, Gandiagak euskaldunci patxadazko kontsolamendua eskaini; kontrara bai, gauden lotalditik mugitarazi nahi izan digu: “Ez gara ohartzen... nola gutxitzen,... ahulduz goazen... hotzapel bihurtzen”; mugitarazte horretarako hitz gogorrez baliatuz (‘txoriburuak’, ‘ezinaren gudariak’), ez gaitzen gehiagotan ere “betiko tranpa berdinean” jausi:

*Gure burua katetik
bebar dugunak askatu
geu gara, geu;
ala
inor ez.*

Idazteko nekea eta grina

Ekintza hauek guztiok ez ditugu Bitorianok nekerik gabean aurrera atara, asko hausnartuz eta sufrizuz bai. Uste dutenei euskararen bidezidorrak nahiko erraztu direla, legeak edo Konstituzioak zein Estatutuak direla kausa, azpimarratu behar diegu ez zituela Bitorianok gauzok horren garbi ikusten:

“Begera, gauzak aldatu dira superfizialki, eta komeni zaigu sinistea gauzak aldatu egin direla, baina barrutik ez gaudete oso seguru aldatu diren ala ez diren. Gure etorkizuna oraindik ez dago garbi, nik ez dut garbi ikusten”⁶⁵; lehenik eta behin, euskaldunon nagikeriagatik:

*Euskaldunak dirurik
egiten du baina
euskerarik ez.*

eta, bigarrenik, “erreinuko bakea ta ejerzituen ondrea ta ospea kantatzen dituzten Erregeren profeten” eragin indartsuagatik:

*Haiei
ez die azala
gure urtzen joateak,
baitzik urtu bagindez
bobe...*

Kritikalari edo irakurle ez gutxi gauza txiki baina sentazio edo sentipen mehekiko atxikimendua eta kolore xehe eta zipristinak atzeman eta adierazteko Gandiagaren gaitasun liriko goraipatu dituzte⁽⁶⁾. Ez digute, haatik, azaldu, Gandiagaren nekrologiak idatzi arte⁽⁷⁾, zelan Bitorianok, kolore zein sentazio edo zipristin horietaz ohartzeko, zenbat ordu luze ematen zuten:

“... goizeko bostetan jaiki eta bueltatxo bat egitera irteten zen... eta dena erreparatzen zuten. Zein basapiztia zebilen, hontzaren ibilerak... Zentzumen leiho guztiak zeuzkan zabalik... Ikaragarria zen eguneroko gauzarik txiki-nari, egunari berari, denborari berari nola erreparatzen zion ikustea. Euriarekin⁽⁸⁾, adibidez, gozatu egiten zuten⁽⁹⁾.”

Gandiagaren euskal hitzekiko zehaztasuna eta umotasuna lortu eta eskaini baldin baditugu⁽¹⁰⁾, ez da izan laniegin gabe: urteetan ibili da Bitoriano euskal autoreak leitzen eta kantatzen (ezkutuka ez gutxitan)⁽¹¹⁾, baita baseritarrengandik hitzak eta esamoldeak bildu eta kopiatzen⁽¹²⁾.

Euskaldunon artean inor gutxi Gandiaga bezalakoa olerki sozialak idazteko⁽¹³⁾, berak jasane baitzuen, beraren haragi propioan, euskaltzale askok bezala, euskal deskulturatze prozesua: euskal baseritar hutsa izanik, ikasketa guztiak gaztelaniaz egin behar izan zituen non eta Euskal Herriko muin-muinean (Arantzazu, Forua, Zarautz...), ikasle eta irakasleak gehiengoa euskalduna zirela, gainera. Prozesu luze horretan ez zuten Bitorianok inoiz ez etsi, ezta euskal kulturagatik baztertuik geratzen ari ziren eskola gabeko euskaldunak bazterrean utzi ere, kontrara baizik, beraiekin, hots, “korupekoekin” egotea erabaki zuten⁽¹⁴⁾.

*Baina ni bajuekin.
Bajuena delako
nire herriko lurra.
Herri bat bizj dut,
berri zabar jatorra,
berriaren gerri
eta baren suzjarra;*

*inoiz ez du kendu
laneko atorra,
inoiz ez du lortu
nabi lukeen apurra;
bizitzen da ta biltzen
ta maite du lurra
eta itotzen date
ta agertzen du lorra
ta ari duen dibarra
ez diboia inora.*

Leiala

Bitoriano guttiz ondo ezagutu zuen Pello Zabaletak, Gandiagaren izacaren zenbait ezaupide azpimarratzekotan, haren lehialtasuna aukeratu du:

“Lurmarekiko, jatorriarekiko, fedearrekiko eta euskararekiko leiala zen, erabat”.

Ez da hautaketa desegokia Bitoriano Gandiagaren ezaugarriok adierazteko:

- Lehiala izatea langilea izatea da, eta Bitoriano langile amorratua zen “eskolako programak kurtsoa bukatu baino askoz lehenago sar eraziko dizkiezu mutikoei. Letra txikian datorena ere”⁽¹⁵⁾.

Langilea, euskal kulturaren arloetan, batez ere; Arantzazuko apaizgaitegian, Bitorianok euskara eta plastika izan baitzituen irakasgai, urte luzez.

Zenbaitzuk Bitorianok liburu askorik ez duela idatzi pentsa dezaketen arren, ohartu beharko ziratekeen Gandiagaren liburuak oso sakon eta landuak direla, lan, pentsamendu, elkarriketa (Oteizarekin, kasuko) zein eztabaida (Bladi de Oterorekin, esateko) eta otoi asko eta luzeak biltzen dituztenak. Inoiz gutxitan topatuko dugu euskal kulturaren arazoaz, adierazkorren bezain trinkoen, aritu den Hiru gizon bakarka liburua bezalakorik:

“Txakolina gustatzen ikasi behar da... Eta txakolina aukeran piska bat garratza egiten zitzaidan... 'Vas a tomar... un trago de chacolí. Vas a tenerlo en la boca hasta que te diga yo. Después





lo bebas. Mientras tanto, piensa en el problema que tenemos los vascos. Piensa que de algún modo es agradable, tampoco somos masocas absolutos, pero tiene su punto de acidez. Cuando te moleste esa acidez en la boca, entonces comprenderás la acidez que nosotros siempre llevamos dentro por pretender ser lo que somos. Ese es nuestro problema. Eso es lo que nos mueve”.⁽⁶⁶⁾

- Leiala izatea iraunkorra izatea da:

*Iraunkortzat nauke,
ta ikusten dabe
zulan eusten deitsadan
beldntakoari.*

euskal kulturarako baldintzarik gogorretan ere zera diox

“Ez dakit esperantza nondik urratu. Oraingoz ikusten dudana zera da, bakoitzak hel diezaiola bere kandelari eta bere makilari. Eutsi, zutik egoteko gauza den arte. Sortuko dira berriak”.⁽⁶⁷⁾

- Leiala izatea euskal errealitatea ezagutzea eta maitatzean datza, are eta maitasun hori errukia bihurtu arte; desorekatuak dagoen gi-

zarteari ondoen egosten zaion jatorrizko sentipena ⁽⁶⁸⁾:

“Nik euskara benetan bizi dut gutxiengo baten hizkuntza ez-indartsu bezala. Ez maitasuna bakarrik, errukia ere badiot. Errukia maitasunaren adierazpen bat da, baina bi hitz dira. Sentimendu hori ezin dut kendu aldetik. Hori eskua kentzea bezala izango litzateke, hori ezin da garbitu”.⁽⁶⁹⁾

- Leiala izatea da inguruko herrien kultura mirestea da (Bigilio, Cervantes⁽⁷⁰⁾), Rabindranath Tagore, Italo Calvino, J.R. Jiménez, E.G. Lorca, A. Machado...), baita jatorrizko Herriaren kultura ere (Lizardi, Lauxeta, Orixe, Mirande, Lekuona...), eta jakite zabal eta aberasgarri hori euskal moldeetan iraultea. Zeinen adierazkorak Gandiagaren bertsoak euskaltzaileen ekintza aizkolari eta arraunlarien lan gogorrek parakatzen duenean:

*Nire eskuei odola
darie baizkora apustuan
baizkolariei bezala;
estropadetan arraunlariei
bezala, odola darie
nire esku ta besazpi
bain porroskatuei.*

Bai zela ausarta Bitoriano Arantzazuko hormako Jesukristoren gorpua hau beratu eta euskal pilotarekin erkatzen duenena:

*Dena bukatu da.
Frontoiko pilota-borman,
bormako altuenenan,
itsatsita geratu da
enskaldunen pilota.*

- Leiala izatea lirika eta bakardadea berezkoak izan arren⁽⁶¹⁾, Araotz zein Soraluze herriotan baseritar eta langileen eskubideen aldeko sindikatu eta kooperatibak eratzeko ahaleginetan ibiltzea da (ez da Bitoriano olerki-gintzatik soilik bizi izan eta)⁽⁶²⁾.

- Euskal kulturarekiko lehiala iraganaren eta geroaren arteko zubia izatea da (bai zubi luzea, euskal kasuan!), tradizioa eta (pos)modernitate lotzea, ez bati ez besteari hutsik gabean. Beraz, honelakoxe genuen Bitoriano Urbiako trikuharriak eta dolmenak maite zituen⁽⁶³⁾ baita Arantzazuko friso banguardista ere⁽⁶⁴⁾. Lotuko ote zituzten Oteizaren Arantzazuko irudi misteriosuek lotu dituzten sakontasun eta edertasuna Bitoriano Gandiagaren interpretaziorik ezean?

Profeta lirikoa

Kontraste handiko sintesi zaila genuen Bitoriano Gandiaga (urragarria sarri, harrigarria beti). Sintesi honetara iristerakoan, neke eta depresio guztien gainetik baita amets huts guztien behetik aritu behar izan zuen Bitorianok, urte luzez jo eta ke, Orbelaungo asabengandik ekarritako euskal muina konkretatu guran, harik eta, literatura lagun, irudikatua lotu arte; baita modernitate eta banguardiarekin matatzaten ere ikasi arte.

Sintesi horretarako bazituen Bitorianok inor gutxi izan ohi dituen dohain batzuk: euskal tradizioaren oinarriko sena, berean iraupe nerako gogoa, Asisko Frantziskoren izadiarekin eta behartsuen aldeko gupidagarritasuna, errealitateaz kargu hartzeko sentiberatasuna, lanerako zintzotasuna, edonongo eta edozeinek bilaturiko edertasuna miresteko zabalatasuna⁽⁶⁵⁾.

“Zentzumenen leiho guztiak zeuzkan zabalik”⁽⁶⁶⁾

Sintesi hori lantzerakoan, haatik, nekaldi garratza jasan behar izan zuen Bitorianok, tokatu zitzaizkion urteak eremuko urteak izan baitziren euskal kulturarako. Egoera latz honi ez zion Bitorianok, izuti eta lotsakorra izanik ere, muxin egin. Profetek antzera erantzun zion Euskal Herriaren betekizunari, nahiz bere aurreraren kontrara egin behar izan. Ahotsa gogortu behar izan zuen⁽⁶⁷⁾, asko kostata ere⁽⁶⁸⁾; ez, haatik, lirikotasuna osorik galdu arte⁽⁶⁹⁾; ez ote da lirika hutsa euskal lurraz autobateo kontzertzen diguneko Hiru gizon bakarkako olerkia? Ez ote dugun atzeman zelan lainotzen zitzaizkion begiak Bitorianori euskararen arrastiria dela eta:

*Euskara
itzaltzen diboa
urrutiko urre
bondar bat bezala,
esku nagi batzuek
bertan behera galtzen
errez utzi duten
urrezko kameta
utzi bat bezala...*

Bitoriano Gandiagaren begiradek Euskal Herriaren hilobiko harri beltzaren kontrara jo bazuten ere⁽⁷⁰⁾, horren zituen irauker eta euskal antsiak piztuta ezen harria mugiarazteko izan zuten indar nahikoa, jai o berri umeaz atzemate-raino.

Gehiengoa harriturik utzi gintuen heriotzaren aurrean Bitoriano Gandiagak erakutsitako sendotasunak. Gu txoriburuok, ahaztuta geneukan Arantzazuko profeta aspaldidanik bizia zela hiltzori luze batean, bere Herriarena, eta argi zipristinez itxaropen zailak chuntzen maisu bihurtua zela. Delako euskal ohiak horretan lanari jarrai gataizkion argizko lorratzak utzi dizkigu Bitorianok bere idazkiotan. Ez ditza-gun iraukitzen utzi.



NOTAS:

- ¹ GANDIAGA, B.: "Nik amatara jo dut".
- ² MITXELENA, K., Egan, 1962 (1-3), 85. or.
- ³ LEKUONA, J. M., Euskaldun Egunkarian, 1998.ko ekainaren 3a.
- ⁴ VILLASANTE, I., "Ataria", Elorri, Arantzazu, Oñati, 1962, 19. or. MITXELENA, K., o. a.: "Neroni ere, gutxi gorabehera, iritzi bereberkoa nauzue. Bere eran eta taxuan -besteak beste, eta inor gutxietsi gabe- nekez ager daiteke Gandiagaren neurrikorik".
- ⁵ Joxe Azurmendi, Mikel Lasa, Dionisio Arruti, e.a.
- ⁶ GANDIAGA, B., Argia, 97.11.30, 25. or.: "Beharbada izatez pixka bat perfekzionista ere naizelako".
- ⁷ AZURMENDI, J.
- ⁸ GANDIAGA, B.: "Euskaraz idatzi./ euskarari indarra emateko/ idazten dugu./ Geure indartxo dugu/ itsasten./ geure bizitzaren zatitxoak/ dizkiogu ezartzen./ zatiak ezik/ bizitza berebizikoa/ ezarri nahi diogun arren,/ ahalmenik ezaren seme/urriok. Denbora galdu alde, 13. or.
- ⁹ Pello Zabalak: "Inguruotan lau mila pago landara sartuak zituela esan ohi zuen".
- ¹⁰ LEKUONA, J. M., El País, 01.02.22, 7. or.; baita: "limó la lengua (el euskara) casi hasta la perfección".
- ¹¹ Hiru gizon bakarka, 1974, 35. or.
- ¹² Aditz hauek guztiok ekartzen ditu Gandiagak "Txakolinaren Ospakuntza 2", III. zatian, euskal kulturaren aldeko egin beharrekoak adierazterakoan.
- ¹³ J. M. Lekuona.
- ¹⁴ GANDIAGA, B., "Nere obraz", o. a., 209. or.
- ¹⁵ GANDIAGA, B., Argia, 1985, 28. or.
- ¹⁶ AZURMENDI, J.: "Elorri-n argiak eta koloreak garrantzi handia dute. Hizkuntza, hitzak, oso landuak daude... bokal eta kontsonante arteko joku musika la egiten du poema horietan".
- ¹⁷ Edo ez gara, orain arte, konturatu; 1985. urtean idatzirik utzi baitzugu: "Oraindik goiz bakoitzara zaizkit/begik zabaltzen./ Oraindik goiz bakoitzeko argiak nau/harritzen eta pozez zorutzen./ Oraindik eskuok, oinok oraindik/egun berri bakoitz oro/goiz berri bakoitz oro ditut argitan ikusten./ Oraindik goiz oro dut/bakoitzean egun berri bat estreinatzen/...".
- ¹⁸ Baita loretxoekin: Horria, adibidez; baita lorekiko sentipenak lagunekin elkarematea. "Udaberrian lehenik jaiotzen diren nartzisoak oso gustoko zituen eta sortatxoak ekarri ohi zituen" (P. Zabala). "Bitoriano Gandiaga, que nos traía una eguzkiloire como un ángel pastor de las campas de Urbía" (Sabina de la Cruz).
- ¹⁹ ZABALA, P. Gandiagaren kontemplazio esperientzia berdina Bizkaiko itsasoreen aurrean: "Gustoko zait azal iluna nahiz itsasoan, nahiz zeruan. Gaurik ilunerako bide sakon aurkitzen dut urdina; nahiz zeruko azulez gora, gora ta gora begiratzen dudala gelditu ta luzaro, nahiz itsasoko uren barrera begiratzen dudala behera eta behera, begiok ilunera iristen zaizkit, ilun handira". "Uda", Hegats 6, 7. or.
- ²⁰ ITURBIDE, A., "Bitoriano Gandiagaren hitza", Egunkaria, 01.02.22, eta Gandiaga, Artze eta Leteren poemagintza, Erein,...
- ²¹ Salvatore Mitxelenaren "Arantzazu euskal poema" irakurteraz honelaxe dio Gandiagak: "(Olitzen) Zapi ginen talde batean eta tranpaz irakurri genuen. Habito-pean gorde poema hori eta sasiarte batetara joaten ginen eta han kantatu egiten genuen, Felix Bilbaok ipintzen zien musika poemei. Behin maisuak harrapatu egin gintuen eta beste zenbait gauzaren artean zera esan zigun: 'Los cantos vascos son tristes...'. Nik ez nekien zer esan, baina banengoen horrekin zerbaiz lotuta eta esan nion: '... pero son verdaderos'".
- ²² GANDIAGA, B., "Ni neu euskal idazleetako bat", Hegats 17/18, 1977 abenduan, 108. or.: "Arantzazuko nekazari eta artzain auzokideei ere zorrik badiet".
- ²³ Kritikariaren ustetan Espainako sozial olerki ekoizpenaren ahultasuna sozial olerkaririk gehienek herriaren benetako egoera ezagutzen ez zutelakoan datza. Ikus ROBIRA, P., La poesía de Jaime Gil de Biedma.
- ²⁴ AZURMENDI, J.: "Erroman erabaki zanean, otoiak hizkuntza bulgarrean egin zitezkeela, Arantzazun erabaki zen, hizkuntza bulgarra fraideen koruan espainola zela eta korupean, jendearentzat, euskara. Asko sentituz, Gandiaga korupera joan zen".
- ²⁵ GANDIAGA, B., Denbora galdu alde, 8. or.
- ²⁶ AZURMENDI, J., "Epiloga", o. a., 201. or.
- ²⁷ GANDIAGA, B., Argia, 1985ko otsailen, 28. or.
- ²⁸ Ikusgarria da zelan azterbide honetan Bitoriano Gandiaga Askapenerako teologoekin bat datorren, baita zein besteak ildo diferenteetik, baina ... Ikus, SOBRIÑO, J., "El principio misericordia", Sal Terrae 10 (1990) 665-678; ELLACURIA, I., "Hacia una fundamentación filosófica del método teológico latinoamericano", ICA, 1975, 322-323, 419. or.
- ²⁹ GANDIAGA, B., Euskaldun Egunkaria, 01.02.22, 44. or.

¹⁰⁰ Ikus Uda Batez Madrilén, 1977, 128-133. orr.

¹⁰¹ AZURMENDI, J., Deia "Ortzadar", 01.03.02, 6. or.: "Zaila egiten zitzaion publikoan ibiltzea, baina euskal munduak... hala eskatzen zioten-eta, gogoz kontra bazen ere, agertzen zen publikoan. Horrek ere so-friarazi egiten zion; egiten zuen baina erretiratzén zenean amasa hartzen zuen".

¹⁰² AZURMENDI, J., "Epilogoá", in Hiru gizon bakarka, Elkar, Donostia, 1991, 192-193. or.: "Ni ikaragarriko lanak eginda nengoen Arantzazu eta Aratzen baseritarren elkarte bat sortu nahiz. Ekartzen nituen Lana-koak, Acción Católica-koak eta inon ziren guztieta-koak, gazteei hitz egin diezaieten... Ni ihardun naiz Arantzazun ez dakit zenbat urte baseritarrak biltzen, Aratzen hiru urte berriro...".

¹⁰³ GANDIAGA, B., "Muy amado Jorge: paz y bien", Gara, 01.02.22, 60. or.: "Lo he amado (este incomparable rincón de Arantzazu) en sus montes, dólmenes, menhires, túmulos y demás construcciones, que gracias a una profunda intuición he podido detewctar y poner a disposición de agudos arqueólogos".

¹⁰⁴ Ibidem: "Amo el arte que se ha realizado en Arantzazu, el espacio religioso abierto alrededor del Santuario, el friso de tantísima unción, las entradas bajas al interior del templo, acogedor y emocionante".

¹⁰⁵ GANDIAGA, B., "Muy amado Jorge", o. a.: "He amado este mundo y he anhelado verlo cada vez más humano, más abierto y más dispuesto para el gozo y el disfrute de la gente toda del universo.. He amado los alrededores del santuario... tratando de tenerlo agradable. He amado el convento, tan rico de experiencias tranquilas, de cuadros y motivos que siempre ayudan a mantener el alma en regiones habitadas por la belleza".

¹⁰⁶ ZABALA, P., Egunkaria, 01.02.22, 41. or.

¹⁰⁷ KORTAZAR, J., Historia de la literatura vasca, Etor, 155 or.: "La palabra quiere volverse piedra, rotundidad y desnudez poética".

¹⁰⁸ Niri poesia purua edo aratza zait gustuko. Poesia lirikoá gehiágo gustatzen zait, e

¹⁰⁹ GANDIAGA, B., "Ene obraz", Hegats, 3. zkia., 1990, 209-210, 212. or.: "Ez nintzen berehalakoan konturatu gai horiek lirismo handiz erabiliak zeudela, ondo aspaldian gainera, Testamentu Zaharreko profeten bereziki. Amos bat basoetatik lau egia aldarrikatzera jaitsi izan balitzaigu guri ere!... Eta Biblia egunen baino egunean argiágo ikusten nuen. San Lukasek Nazaretoko Mariaren ahoan jartzen duen Magnificat hura bera ez da poesia sozial makala".

¹¹⁰ Oteizari galdera: ¿Cómo denominaría usted el conjunto de la poetada?: Muro funerario del Pueblo Vasco para un imaginable cementerio de pueblos.

